

ber-berak egin zizkiola zuzenketak. Baina ez dugu uste Goierriko euskalkian hain egoki mintzatzen zenik, ezta ere Eibartik igaro zenik. Behar bada, bere jarraitzaileen bat izango zen, Ebangelio Ekintzakoa, liburu hura Manuel Azañak espainolertzean, *La Biblia en España* (1921), atera zuen hotsaren eraginezko ondorioz.

Memoria hutsa lagur gelditzen da.

* * *

ERMUA, HERRI-MUGA?—Igazko azaroan (*La Voz de Euskadi*-k 1983ko azaroaren 27an zekarrenez), Bizkaian, Ermuko Euskadiko Ezkerra talde politikokoek beren buletina kaleratu zuten *Herri Muga* izenburuz, eta honako argitasun hau emanez: «se ha especulado mucho en diversos trabajos sobre el origen toponímico del término Ermua y, entre los diversos vocablos que pudieron ser la base del mismo, sobresalen dos que gozan de una mayor aceptación: Ermua (lugar yermo, no cultivado) y Herri Muga (pueblo frontera). Sin pronunciarnos por uno o por otro, hemos decidido utilizar este último como cabecera de nuestro órgano de expresión local». Ederto! Bapo! Hastekota behin, erdaraz egiteko zergatik behar dute euskarazko tituludun buletina? Eta, izena hautatzeko orduan, euskaraz ez bada-kite, zergatik ez dute jo euskaldun normal batengana? Filologia edo linguistika ikasi beharrik ez zen hori erabaki dezakeenen artean. Zentzuz jokatu behar den gauzetan ere «gozar de aceptación» ote arrazoizkoa? Karameluak edo koloreak hautatzen diren gisa, proposatu eta, beste gabe, hautatu.

«Pueblo frontera» izan balitz bere itzulpena, *muga-herri* zen eta ez alderantziz. Gainera, guti axola Euskal Herriko Ermua bakarra Bizkaiko hori izan balitz. Ez dakigu zergatik ez on har Eremu, latinezko *eremus*-tikakoa, oso argi eta oso zabaldua dagoen ezkerro.

Gainera, gure historian, muga, zerena? Izen hori ez al zen ba ezagutzen Bizkai-Gipuzkoen arteko muga jarri baino lehen?

Argi dago jokaera hori libertatearen zentzuzkoa izanen dela, baina ez giza zentzuzkoa. Azkenean, euskararen kaltean eta euskararen etsai holako buruarinak.

* * *

AZPIRI TXIKI, «CHIQUITO DE EIBAR» EN JATORRIZ.— Eibarren, *eibartarra*, bertan jaioa edo bertako jatorrizkoa da; *Eibarkoa*, bertan bizi baina kanpotik etorria edo bertako jatorririk ez duena. Badakigu «Chiquito de Eibar» Durangon jaio zena, baina aita eta aitaren aldekoak jatorriz eibartarrak zirenez, bere burua eibartartzat zuen eta pelotari ospetsua egin zen neurrian Azpiri Txiki izateari utzi eta «Chiquito de Eibar» hartzen joan zen.

Berriki, Migel Pelay Orozkoren *Pelota, pelotari, frontón* liburu ederra irakurtzean, 67. orrialdean nindoala, harriturik gelditu naiz honako hau irakurtzean; «El Chiquito, que no era de Eibar, sino de Durango, había nacido en el caserío Azpiri, el día 22 de mayo de 1860». Baina, Azpiri baserrian ez zen jaio, Durangon ez dagoelako Azpiri izeneko baserriarik, bai ordea Eibarren.

Pilotaren historietan zuzenketarik eginen bada edo ez, argitasun zenbait emango dut horri buruz. Horrenbeste merezi bai du horrelako pertsonaiak.

Eibarko baserrien agiriak ematean, Azpiri deritzanaren lehen aztarnak 1516. urtean agertzen dira. Gaur oraindik zutik dago baserri hori eta pertsonaia ospetsurik eman du, bai Azpiri deituraz eta bai Sarasketarenaz. Eibarko Sarasketak ekaldetik etorriak ziren, baina aintzinatik eibartartuak. Horien adarrik